

ARABA, BIZKAIA ETA GIPIZKOAKO IKASTOLETAKO MAHAI NEGOZIATZAILEAK AURRERA DARRAI.

Ekainaren 14an EAEko ikastoletako Lan-hitzarmeneko mahaia bildu zen.

Lan erreforma dela eta, aurreko lan-hitzarmeneko mahaian, 2022-2023 ikasturteari begira, ikastolek egin behar dituzten **kontratazioak erregulatzeko proposamena luzatu zuten Ikastolen Elkarteak zein EIBk.**

LABek, proposamena aztertu ostean, ondokoa adierazi zuen lan hitzarmeneko mahaian:

1. Lan-hitzarmeneko 23. artikuluan ezartzen den bezala, langile guztientzat %100 lanaldia duten **kontratu mugagabeak sinatzea izan behar du helburua.**
2. **Behin-behineko kontratuak salbuespenezkoak izan behar dira eta hauek egoki arautu beharko lirateke:**
 - a. **ekoizpen-arrazoiengatik kontratuetan** gure sektoreran egokitzen diren doikuntzak adosteko prest egon arren, prekaritatea ekarri dezaketen egoerak ekiditeko beharra adierazi zen, hala nola, **noizbehinkako egoerei aurre egiteko urtean 90 egunez erabili daitekeen kontratu modalitatea ez onartzea exijitu genuen.**
 - b. **Ordezkapen kontratuei dagokienez**, lanpostu erreserba duten langileen ordezkapen luzeak egiten ari diren behin-behineko langileak egonkortzeko formulak proposatu genituen.
 - c. **Behin-behineko kontratuak salbuespenezkoak izan daitezten hauei muga jarri eta jarraipen bat egitea proposatu genuen.**
3. **Aldizkako lan-kontratu finkoei dagokienez**, hauek gure errealitatera egokitzeko prest egon arren, **oso ongi erregulatu behar direla adierazi genuen:**
 - a. **Kontratu mota hauek**, legeak ezartzen dituen baldintzak betez, **aktibitate konkretu batzuei lotu beharko liratekeela adierazi geneun.** Horien artean aipatu genituen Hezkuntza ez arautuko aktibitate zehatz batzuk (jangela eta autobusa kasu) eta Jarduera Osagarrietako zenbait langile (udalekuetakoak adibidez).
 - b. **Kontratuen zehaztapenaren, lanpostuen deialdiaren, ikastolek arau hausteren bat eginez gero langileek jaso beharreko konpentsazioaren...** inguruko eskakizunak burutu genituen.
 - c. **Aldizkako lan kontratuei muga jarri eta jarraipen bat egitea proposatu genuen.**

Ikastoletan kontatu mugagabeak sinatzea izan beharko luke helburua.

Behin-behineko kontratuei zein aldizkako kontratu-finkoei mugak ezarri beharko litzaizkieke.

Planifikazio eta kontzertazio irizpideak argitzea exijitzen dugu birkokatze prozesua gauzatu eta kontratazio berriak egin ahal izateko.

Badugu

AUKERA

Euskal eskola
publiko komunitarioa
iruten

Info

Ikastolen Elkartek, EIBk eta LABek akordioetara heltzeko prestutasuna adierazi genuen. Horretan gaude eta horretan jarraituko dugu langileentzako ahalik eta baldintzarik onenak lortu arte.

Bestetik, **beharrizan eta eszedenteen gaia ixteke dagoela adierazi zen.** Hurrengo ikasturterako zeintzuk izango diren gelak osatzeko irizpideak oraindik ez daude argi eta honek planifikaziorako zailtasun handiak dakartzanez beharrizan eta eszedenteen prozedura geldirik dagoela adierazi zuen Ikastolen Elkartek. **Gaiak birkokapen eta kontratazio berrietan duen garrantzia ikusirik, berau lehenbailen desblokeatzea exijitzen dugu.**

Besterik gabe, hurrengo mahai negoziatzaileko behin behineko data finkatu zen bilerari amaiera emanetz: hurrengo hitzordua, ekainaren 28an izango da.

LAB IKASTOLETAKO LANGILEEN ESKUBIDEEN ALDE! GORA LANGILEON BORROKA!

Ikastolakgipuzkoa@lab.eus
ikastolakgipuzkoa1@lab.eus
ikastolakbizkaia@lab.eus
ikastolakbizkaia1@lab.eus
ikastolakaraba@lab.eus
ikastolaknafarroa@lab.eus

666779156
666775746
674137953
674137908
666774912

>irakaskuntza

